

'Next Generation': berde eta digitala



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Horrela dio planetan inoiz egon den zor publikoaren programarik handinahienak, datozen 7 urteetan 750.000 milioi euroko diru-laguntzak eta maileguak (erdibana) banatuko dituenak. Europa suspertzearekin batera, ekonomia berdeagoa (trantsizio energetikoa) eta digitalizazioa, hots deskarbonizazioa bultzatzea, ditu helburu. Aro digitalean bizi garenetik, internet gure bizitzan agertu zenetik, teknologia digital berriek gure produkzio, komunikazio, hezkuntza edota kontsumo ereduak modu nabarmenean aldatu dituzte. Baina internet ez dator zerutik, askok pentsarazten digutenaren kontra. Ez da hodei arin eta etereoa. Azpiegitura erraldoi bat bezala ulertu behar dugu, kontinenteen arteko kable eta makro-ordenagailu batzuen bidez, datuak transmititzen dituenak. Gizakiok sortu dugun azpiegitura handiena eta konplexuena. Teorian, ekonomiaren desmaterializazioa eta deskarbonizazioa lortzeko, baina datuek ez dute horrelakorik baieztatzen.

Youtube da energia elektriko gehien kontsumitzen duen enpresa mundu osoan, adibidez. Teknologia digitalen kontsumo elektrikoa batzen badugu, ekonomialari batzuek egin duten moduan, AEB eta Txinaren atzetik munduko hirugarren kontsumoa izango litzateke (%8).

Hots, energia eta materialen erabilera,

internetek ez du ekarri inongo desmaterializazio edo deskarbonizaziorik. Aldiz, teknologia digitalen energia eta lehengai metaliko batzuen kontsumoa da gehien handitu dena azken hamarkadan eta gora doa digitalizazio prozesuen zabaltzearekin.

Alabaina, dispositibo digitalek, energiaz kanpo, materia berezi batzuk (kobrea, litioa, kobalto, indioa, lur arraroak...) behar dituzte eta horrek, dinamika estraktibistekin batera, arazo sozial, politiko eta ekologiko larriak eragiten ditu.

Kontrola. Naomi Kleinek dionez, digitalizazioak kontrol soziala areagotu du asmo errepresiboekin, shock digitalaren doktrinaren bitartez. Google, Apple, Facebook, Amazon eta Microsoft (GAFAM) korporazioek, gure eguneroko bizitzaren jarduerak jarraituz lortzen duten datuekin negozio ederra egiteaz gain, ez dute ingurumena errespetatzen, demokraziaren aurkariak dira eta gure bizitza zelatatzen dute, kapitalismoak behar dituen pilatze eta akumulazio prozesuak egikaritzeko.

Azkenik, ekonomia hiperdigitalizatzek eta robotizatzek milioika enplegu suntsitzea ekarriko du datozen hamarkadetan. Beraz digitalizazio gehiago baino, norabide aldaketa edo ziaboga egin behar dugulakoan nago, etorkizuneko belaunaldientzat zor bidegabe eta onartezina saihesteko. ●

Zorretan



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hondar egunotako agerpenen ildotik, euskaldunok egundainokoan iraganarekiko eta etorkizunarekiko zorretan gaudela ematen du. Julen Madariaga ETAre sortzaileetatik baten zentzeak hitzaren metxa berriz piztu duela dirudi: zorretan gabiltza beraz, bera eta bere lagunak ekinik gabe ez geundelako orain gauden egoeran, *Tatort* telesaila alemanez ikusten eta Komunikazio Ez Biolentoaren irakaspenak ikasten.

Hamalauko gerla bukatzean, gure arbasoei elizak disgusturaino errepikatu zien Frantziarekiko odolaren zorra ordaindurik, aberri txikikoek bazutela *de*

facto aberri handiko kide oso izateko eskubidea. Zordunak zirelako, dena onartu zuten, *erdi atzarrik, erdi lo, erdi hil* Niko Etxartek zioen bezala. Apez aurre-ahortzaleek euskara galtzearen errua ere leporatzen zieten, bereziki emaztekier. Aterabiderik ez duen menpekotasun inplizitu baten ikurra da zorra, etxean, herrian eta munduan.

Zorra gurean ideologikoa da: kapitela eta interesak batuz, animalekoa bilakatu eta bizitzak eskatu dira horren kitatzeko, sakrifizioak, martirioak, eresiak... duela gutxi arte ezagutu dugun zordunon parafernalia. ●